

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

GAZTEEN ARGAZKIAK 10
RETRATOS DE JUVENTUD 10

2007ko urria
Octubre 2007



http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea / Índice

SARRERA / INTRODUCCIÓN	3	B – EGOERAREN BALORAZIOA / VALORACIÓN DE LA SITUACIÓN	34
LABURPENA / SÍNTESIS	5	• Bizi kalitatearen balorazioa / Valoración de la calidad de vida.....	35
A – JARRERA POLITIKO OROKORRAK / ACTITUDES POLÍTICAS GENERALES	8	• Norberaren arazo nagusiak / Principales problemas personales.....	36
• Politikarekiko interesa / Interés por la política.....	9	• EAEko arazo nagusiak / Principales problemas de la CAPV.....	38
• Alderdi batekiko hurbiltasuna / Proximidad a algún partido político.....	11	• EAEko hezkuntza sistemaren egoeraren balorazioa / Valoración de la situación del sistema educativo en la CAPV.....	40
• Alderdi politikoekiko begikotasuna / Simpatía hacia los partidos políticos.....	12	• EAEko enpleguaren egoeraren balorazioa / Valoración de la situación del empleo en la CAPV.....	41
• Buruzagi politikoaren balorazioa / Valoración de líderes políticos.....	14	• EAEko gizarte zerbitzuen egoeraren balorazioa / Valoración de la situación de los servicios sociales en la CAPV.....	42
• Norberaren kokapena ezker-eskuin ardatzean / Autoubicación en el eje izquierda-derecha.....	16	• EAEko ingurumenaren egoeraren balorazioa / Valoración de la situación del medio ambiente en la CAPV.....	43
• Norberaren kokapena euskal herritar-espainiar ardatzean / Autoubicación en el eje vasco-español.....	18	• Egoera politikoa, ekonomikoa eta soziala Euskadin eta Estatuan / Situación política, económica y social en el País Vasco y en el Estado.....	44
• Estatuaren lurralde antolaketa / Organización territorial del Estado.....	20	○ Egoera politikoa Euskadin eta Estatuan / Situación política en el País Vasco y en el Estado.....	45
• Autodeterminazio eskubidea onartzeari buruzko jarrera / Actitud respecto al reconocimiento del derecho de autodeterminación.....	21	○ Egoera ekonomikoa Euskadin eta Estatuan / Situación económica en el País Vasco y en el Estado.....	46
• Euskal Herriaren independentziari buruzko iritziak / Opiniones en relación a la independencia del País Vasco.....	22	○ Egoera soziala Euskadin eta Estatuan / Situación social en el País Vasco y en el Estado.....	47
• Independentziarekiko jarrera / Actitud hacia la independencia.....	24	• Egoera orokorra Euskadin eta Estatuan / Situación general en el País Vasco y en el Estado.....	48
• Independentziari buruzko erreferenduma / Referéndum sobre la independencia.....	26	• Demokraziaren funtzionamendua Euskadin eta Estatuan / Funcionamiento de la democracia en el País Vasco y en el Estado.....	49
• Euskal Herriaren erabaki eskubideari buruzko iritzia / Opinión sobre el derecho de decisión del País Vasco.....	27	• Giza eskubideen errespetua Euskadin eta Estatuan / Respeto a los derechos humanos en el País Vasco y en el Estado.....	51
• Euskal Herriko gatazka politikoari buruzko iritzia / Opinión en relación al conflicto político vasco.....	28	• Idea politikoaren defentsa Euskadin eta Estatuan / Defensa de las ideas políticas en el País Vasco y en el Estado.....	53
• Herritarrek normalizazio politikorako prozesuan parte hartzearen beharra / Necesidad de la participación ciudadana en el proceso de normalización política.....	29	• Politikaz hitz egiteko askatasuna / Libertad para hablar de política.....	55
• Bake prozesuarekiko interesa / Interés por el proceso de paz.....	30		
• Bake prozesuaren presentzia eguneroko bizitzan / Presencia del proceso de paz en la vida cotidiana.....	31		
• Erakundeekiko konfiantza / Confianza en instituciones.....	32		

C – ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA / ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN	56
• Administrazioarekiko poztasuna / Satisfacción con la administración.....	57
• Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren kudeaketan balorazioa / Valoración de las gestiones del Gobierno Vasco y del Gobierno Español.....	59
• Eusko Jaurlaritzaren jardueren balorazioak arloka / Valoraciones de las actuaciones del Gobierno Vasco por áreas.....	60
• Euskadin eskainitako zerbitzuak Estatukoekin alderatuta / Servicios ofertados en el País Vasco en comparación con los del Estado.....	62
D – ALBISTEEN JARRAIPENA HEDABIDEETAN / SEGUIMIENTO DE LAS NOTICIAS EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN	65
• Albisteak jarraitzearen maiztasuna / Frecuencia de seguimiento de las noticias.....	66
○ Albisteak telebistaz jarraitzearen maiztasuna / Frecuencia de seguimiento de las noticias en la televisión.....	67
○ Albisteak irratiz jarraitzearen maiztasuna / Frecuencia de seguimiento de las noticias en la radio.....	68
○ Albisteak prentsz jarraitzearen maiztasuna / Frecuencia de seguimiento de las noticias en la prensa.....	69
• Albiste motaren arabera arreta / Atención prestada según el tipo de noticia ..	70
• Hedabideekiko konfiantza orokorra / Confianza general en los medios de comunicación.....	72
ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA	74

Sarrera / *Introducción*

Helburuak eta Informazio Iturria / Objetivos y origen de la Información

Txosten hau “Gazteen Argazkiak” bildumaren hamargarren alea da, eta 2006an egindako hiru azterketa soziologikotan Euskal Autonomia Erkidegoko 15 eta 29 urte arteko gazteek emandako erantzunak gehitzearen emaitza da.

Ikerketa horietako galderak Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak landutakoak dira (nahiz eta kasu batzuetan Estatu edo Europa mailan egindako ikerketetan oinarritu).

1996tik orain arte antzeko datuak ditugunez, gaztediaren iritziek izan duten bilakaeraren ikuspegia ere jaso ahal izan dugu. Era berean, eta konparazioetarako, 2006ko azterketa berberetan 30 urte eta gehiagoko pertsonak emandako erantzunak ere kontuan hartu ditugu, baita kasu zehatzen batetan Estatu osoko 15-29 urtetako gazteen datuak ere.

Hala, 2006an EAEko gazteak nolakoak diren jakiteaz gain, helduengandik eta Estatu osoko gazteengandik zertan desberdintzen diren eta jarreretan izandako bilakaerak zeintzuk diren ere jakin nahi dugu. Deskribapeneko, bilakaerako eta konparaketako ikuspegi horrek gidatuko ditu honako orrialdeak.

Este informe constituye la décima entrega de la serie “Retratos de Juventud” y es fruto de la agregación de las respuestas de las y los jóvenes (de 15 a 29 años) en tres estudios sociológicos realizados durante el año 2006 en la CAPV.

Las preguntas realizadas en esos estudios han sido elaboradas por el propio Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco (si bien en algunos casos se ha apoyado en estudios realizados a nivel estatal o europeo).

Contar con datos similares desde 1996 permite aportar una visión evolutiva de las opiniones de la juventud. A su vez, a efectos comparativos, se han contemplado también los resultados globales de las personas de 30 y más años, procedentes de los mismos estudios del año 2006, y en algún caso concreto de las y los jóvenes de 15 a 29 años de la totalidad del Estado.

Así pues, el objetivo es conocer, no sólo cómo son las jóvenes y los jóvenes vascos en el año 2006, sino también en qué se diferencian de sus mayores y de la juventud de la totalidad del Estado, así como ver cómo van evolucionando sus actitudes. Este enfoque, descriptivo, evolutivo y comparativo, es el que va a guiar las páginas que siguen.

Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Aurkeztutako datuak gazteria osoari dagozkiolarik ez ezik zenbait aldagairen arabera ere aztertu dira. Ondokoak dira aldagai horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.*
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa.*
- Adin taldeak: *15-17, 18-21, 22-25 eta 26-29.*
- Gehienbat euskal herritar sentimendua: *bai, ez.* Norbera euskal herritar – espainiar ardatzean kokatzeko eskatzen den galderatik abiatuz, beren burua euskal herritartzat bakarrik edo espainiartzat baino gehiago euskal herritartzat jotzen dutenek gehienbat euskal herritar sentimendua dutela esan daiteke, eta euskal herritar bezain espainiarrak, euskal herritar baino gehiago espainiarrak edota bakarrik espainiarrak sentitzen direnek (azken bi talde horiek oso gazte gutxi osatzen dituzte) gehienbat euskal herritar sentimendua ez dutela esan ahal da.

Los datos presentados son analizados, no sólo desde los totales de jóvenes, sino también en base a distintas variables. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- Sexo: *varón y mujer.*
- Grupos de edad: *15-17, 18-21, 22-25 y 26-29.*
- Sentimiento predominantemente vasco: *sí, no.* Partiendo de la pregunta de autoposicionamiento en el eje vasco-español, se considera que sí tienen sentimiento predominantemente vasco quienes se definen como únicamente vascos/as o más vascos/as que españoles/as, y que no tienen dicho sentimiento quienes se declaran tanto vascos/as como españoles/as, más españoles/as que vascos/as o predominantemente españoles/as (estos dos últimos colectivos agrupan a un reducido número de jóvenes).

Laburpena / *Síntesis*

Zelako jarrera politikoak ditu euskal gazteriak?

Euskal gazteek interes txikia dute politikan (aurreko urteetako baino txikiagoa) eta ez dira alderdi politikoetatik hurbil sentitzen. Hobekien baloratu duten alderdia EAJ da eta puntuaziorik altuena eman dioten buruzagi politikoa Ibarretxe lehendakaria da, nahiz eta ez bata ez besteak ez lortu oniritzia (5 puntu 0-10 eskalan). Gazteek batez ere ezkerreko zatik jo dute beren burua eta euskal herritar nortasun sentimendu nagusia adierazi dute (30 urte eta gehiagoko pertsona baino handiagoa). Konfiantza handien sortzen dieten erakundeak Gobernu Kanpoko Erakundeak dira, eta konfiantza gutxien, aldiz, alderdi politikoak, eliza eta ejerzitua.

Gazteen erdiek baino zertxobait gehiagok autogobernu handiagoa nahiko lukete, bai autonomia gehiagorekin, bai autodeterminazio eskubidea onartuz (izatez, hamar gaztetatik seik eskubide hori onartzearen aldekoak direla diote). Gazte gehienek uste dute Euskal Herriak baduela bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea eta gizarte demokratiko batean aukera guztiek, independentzia barne, posible izan beharko luketela. Zentzu horretan, Euskal Herriaren independentziaren aldeko gazteak kontrakoak baino gehiago dira. Halaber, Estatuak Espainaren batasuna bitarteko guztiek, indarkeria barne, defendatu behar duelako ideien kontra daude gazte gehienak.

Bestalde, gazteen ustez, Euskal Herrian, indarkeriaz gain, arazo politikoa dago, eta normalizazio politikoari begira prozesu horretan herritarrek parte hartu behar dutela defendatzen dute gazteek.

Nola baloratu dute gazteek egoera 2006an?

Gazteen gehiengo zabalak uste du bai bere bizi kalitatea, baita EAEko bizi kalitate orokorra ere, onak direla. Gazteen arazorik nagusienak lanarekin lotutakoak (langabezia, lan ezegonkortasuna, lan baldintzak eta abar) eta etxebizitzarena dira; hori talde guztietan errepikatzen da 15 eta 17 urte artekoen artean izan ezik, horien kezka nagusia ikasketak baitira. Gazteen ustez, EAEn enpleguaren egoera ez da ona, baina hezkuntzarena, gizarte zerbitzuena eta ingurumenarena ontzat jo dituzte.

Euskadiko egoera ekonomikoa, soziala eta politikoa ontzat jo dituztenek gehiengo osatu dute eta, izatez, egoera sozialaren eta politikoaren pertzepzio positiboak nabarmen gehitu dira aurreko urteetatik hona (gogoratu behar da 2006ko martxoan ETAk su-etena hasi zuela). Estatuako egoera sozialaren eta politikoaren pertzepzioak ere asko hobetu dira, nahiz eta Euskadikoen mailetara ez heldu. Bai Euskadiko, bai Estatuako egoeren balorazio orokorrekin gazteek oniritzia lortu dute eta, are gehiago, 1999ko puntuazio onak errepikatu dira (orduan ere ETA-ren su-etena indarrean zegoen). Giza eskubideek Euskadin eta Estatuan duten errespetuarekiko pertzepzioa ere hobetu da.

¿Qué actitudes políticas tiene la juventud vasca?

Las y los jóvenes vascos muestran poco interés por la política (menos que en años anteriores) y tampoco se sienten próximos a los partidos políticos. El partido que mejor valoran es el PNV y el líder político al que otorgan mejor puntuación es el Lehendakari Ibarretxe, si bien ni uno ni otro consiguen el aprobado. La juventud se define principalmente de izquierda y con un sentimiento identitario vasco predominante (y superior al de las personas de 30 y más años). Las instituciones en que más confían las y los jóvenes son las ONGs y en las que menos confían son los partidos políticos, la iglesia y el ejército.

Algo más de la mitad de las y los jóvenes desearía mayor autogobierno, bien con más autonomía o con el reconocimiento del derecho de autodeterminación (de hecho, seis de cada diez jóvenes se declaran a favor de tal reconocimiento). Y es que la mayoría cree que el pueblo vasco tiene derecho a decidir su propio futuro y que en un sistema democrático todas las opciones debería ser posibles, incluida la independencia. En este sentido, son más las y los jóvenes favorables a la independencia del País Vasco que las y los contrarios a ella. Así mismo la juventud se muestra mayoritariamente en contra de que el Estado deba defender la unidad de España por todos los medios, incluida la fuerza.

Por otro lado, las y los jóvenes piensan que en el País Vasco existe un problema político más allá de la violencia, y de cara a la normalización política, la juventud defiende la participación ciudadana en dicho proceso.

¿Cómo valoran las y los jóvenes la situación en el año 2006?

La gran mayoría de las y los jóvenes considera que tanto su calidad de vida personal como la calidad de vida general en la CAPV son buenas. Sus principales problemas personales son los relacionados con el trabajo (paro, precariedad laboral, condiciones laborales, etc) y la vivienda; esta percepción se repite en todos los colectivos excepto entre quienes tienen entre 15 y 17 años, cuyo principal problema son los estudios. Las y los jóvenes creen que la situación del empleo en la CAPV no es buena, pero sí consideran buena la situación de la educación, de los servicios sociales y del medio ambiente.

Son mayoría quienes consideran que tanto la situación económica, como la social o la política en el País Vasco son buenas y, de hecho, las percepciones positivas de las situaciones social y política han mejorado notablemente respecto a años anteriores (hay que recordar que en marzo de 2006 ETA inició una tregua). También las percepciones de la situación política y social en el Estado han mejorado sustancialmente, aunque sin llegar a los niveles relativos al País Vasco. La valoración general de la situación, tanto en el País Vasco como en el Estado, alcanza el aprobado y, de hecho, repite las buenas puntuaciones de 1999 (anterior periodo de tregua de ETA). También ha mejorado la percepción del respeto a los derechos humanos en el País Vasco y en el Estado.

Eta nola baloratu dute administrazioaren jarduera?

Gazteak pozik daude euskal administrazioarekin (udalekin, foru aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin), eta Estatuko Gobernuarekin pozik daudenek gehiengo osatu ez duten arren, horrekiko poztasuna gehitu da aurreko urteetatik hona.

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen arloetatik, gazteek osasuna eta hezkuntza baloratu dituzte hobekien (izatez, gazte gehienen ustez Euskadin eskainitako osasun eta hezkuntza zerbitzuak Estatuko gainontzeko lekuetan eskainitakoak baino hobekak dira), eta jarraian euskara, gizarte ongizatea, garraioa eta kultura zerbitzuak. Txartoen baloratu-tako arloa, aldiz, etxebizitzarena da.

Nolako jarraipena egiten diete gazteek albisteei hedabideetan?

Gazteen erdiek baino apur bat gehiagok egunero ikusten dituzte telebistako albistegiak, baina bakarrik heren batek irakurtzen ditu egunkariak egunero eta are gutxiago dira irratiko albistegiak egunero entzuten dituztenak. Albisteen eguneroko kontsumo hori adinean gora egin ahala handitzen da eta nabarmen handiagoa da 29 urtetik gorakoen artean.

Gazteei gehien interesatzen zaizkien albisteak gai sozialekin edota kirolekin lotutakoak dira (geroago, kiroletako albisteeekiko interesa jaisten da adinean gora egin ahala); eta gutxien interesatzen zaizkienak albiste politikoak eta ekonomikoak dira.

Gazteen heren batek bakarrik du konfiantza komunikabideetan, oro har. Hedabide ezberdinekiko konfiantzak iraulketa izan du 1998ko datuekin konparatuz gero: orduan gazteengan konfiantza handien sortzen zuen komunikabidea irratia bazen, konfiantza hori eskatu da eta 2006an konfiantza txikien sortzen duena da irratia; telebistarekin, aldiz, kontrakoa gertatu da, lehen konfiantza gutxien sortzen zuena zen eta orain konfiantza gehien sortzen duena da.

¿Y cómo valoran el funcionamiento de la administración?

Las y los jóvenes se muestran satisfechos con la administración vasca (ayuntamientos, diputaciones y Gobierno Vasco) y, si bien son minoría las y los satisfechos con el Gobierno estatal, esta satisfacción se ha incrementado respecto a años anteriores.

Las áreas de gestión del Gobierno Vasco mejor valoradas por la juventud son la sanidad y la educación (de hecho, la mayoría de los jóvenes creen que los servicios sanitarios y educativos ofrecidos en el País Vasco son mejores que los del resto del Estado), seguidas del euskera, bienestar social, transportes y cultura. Por el contrario, el área peor valorada es el de vivienda.

¿Qué seguimiento hacen las y los jóvenes de las noticias en los medios de comunicación?

Algo más de la mitad de las y los jóvenes siguen los informativos televisivos a diario, pero sólo un tercio lee la prensa todos los días y son menos aún quienes escuchan a diario los informativos radiofónicos. Este consumo diario de noticias se incrementa a medida que aumenta la edad, siendo notablemente mayor entre quienes superan los 29 años.

Las noticias que más interesan a las y los jóvenes son las relacionadas con temas sociales y con deportes (posteriormente, el interés hacia los deportes desciende a medida que se incrementa la edad) y las que menos interesan son las políticas y económicas.

Apenas un tercio de la juventud confía en los medios de comunicación en general. La confianza en los distintos medios ha experimentado un vuelco respecto a 1998: si entonces el medio en que más confiaban los y las jóvenes era la radio, esta confianza ha disminuido hasta llegar a ser el medio en el que menos confían en 2006; mientras que respecto a la televisión ha ocurrido lo contrario, antes era el medio en que menos confiaban y ahora es el que más confían.

A - Jarrera politiko orokorrak / *Actitudes políticas generales*


- **Politikarekiko interesa / *Interés por la política***
- **Alderdiren batekiko hurbiltasuna / *Proximidad a algun partido político***
- **Alderdi politikoekiko begikotasuna / *Simpatía hacia los partidos políticos***
- **Buruzagi politikoaren balorazioa / *Valoración de líderes políticos***
- **Norberaren kokapena ezker-eskuin ardatzean / *Autoubicación en el eje izquierda-derecha***
- **Norberaren kokapena euskal herritar-espainiar ardatzean / *Autoubicación en el eje vasco-español***
- **Estatuaren lurralde antolaketa / *Organización territorial del Estado***
- **Autodeterminazio eskubidea onartzeari buruzko jarrera / *Actitud respecto al reconocimiento del derecho de autodeterminación***
- **Euskal Herriaren independentziari buruzko iritzia / *Opiniones en relación a la independencia del País Vasco***
- **Independentziarekiko jarrera / *Actitud hacia la independencia***
- **Independentziari buruzko erreferenduma / *Referéndum sobre la independencia***
- **Euskal Herriaren erabaki eskubideari buruzko iritzia / *Opinión sobre el derecho de decisión del País Vasco***
- **Euskal Herriko gatazka politikoari buruzko iritzia / *Opinión en relación al conflicto político vasco***
- **Herritarrek normalizazio politikorako prozesuan parte hartzearen beharra / *Necesidad de la participación ciudadana en el proceso de normalización política***
- **Bake prozesuarekiko interesa / *Interés por el proceso de paz***
- **Bake prozesuaren presentzia eguneroko bizitzan / *Presencia del proceso de paz en la vida cotidiana***
- **Erakundeekiko konfiantza / *Confianza en instituciones***

Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Politikarekiko interesa / Interés por la política

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

Nolako interesa duzu politikaz? / ¿En qué medida está Ud. interesado/a en la política?



Heren bat baino gutxiago dira 2006an politikaz interes handia edo nahikoa dutela diotenak. Interes hori aurreko urteetan baino baxuago da.

Son menos de un tercio las y los jóvenes que en 2006 dicen estar muy o bastante interesados en la política. Este interés ha descendido respecto a años precedentes.

Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Politikarekiko interesa / Interés por la política


(KOLEKTIBOKA ETA ALDERAKETA GEOGRAFIKOA / POR COLECTIVOS Y COMPARACIÓN GEOGRÁFICA)

Nolako interesa duzu politikaz? / ¿En qué medida está Ud. interesado/a en la política?

n=2.165	15-29 URTE / 15-29 AÑOS											>= 30 URTE >= 30 AÑOS	
	GAZTEEN GUZTIZKOAK / TOTAL JÓVENES	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				GEHIENBAT EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA / SENTIMIENTO PREDOMINANTEMENTE VASCO		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	15-17	18-21	22-25	26-29	Bai / Sí		Ez / No
INTERES HANDIA / MUY INTERESADO/A	7	7	6	8	9	5	2	8	9	8	9	6	8
NAHIKOA INTERES / BASTANTE INTERESADO/A	21	17	19	26	22	20	16	21	22	23	24	19	22
INTERES GUTXI / POCO INTERESADO/A.....	31	35	30	31	32	30	27	30	31	35	32	32	35
BATERE INTERESIK EZ / NADA INTERESADO/A.....	40	39	43	33	36	43	52	40	37	35	34	43	34
Ed-Ee / Ns-Nc	1	1	1	1	1	1	2	1	1	0	1	0	1
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- Gazteen artean nagusien artean baino gehiagok diote ez dutela inolako interesik politikaz.
- Politikarekiko interesa handiagoa da Gipuzkoako gazteen artean, baita gehienbat euskal herritar sentimendua dutenen artean ere. Aitzitik, 15-17 urte arteko gazteen erdiek ez dutela inolako interesik politikaz diote.
- EAEko gazteak Espainiakoak baino neurri handiagoan kokatzen dira muturreko jarreretan: EAEn gehiago dira interesa dutenak, baita inolako interesik erakutsi ez dutenak ere.

- Entre los y las jóvenes son algunos más que entre las y los mayores quienes dicen no estar nada interesados en la política
- El interés por la política es mayor entre las y los jóvenes guipuzcoanos y entre quienes tienen sentimiento predominantemente vasco. Por el contrario, la mitad de las y los jóvenes de 15 a 17 años dicen no estar nada interesados en la política.
- Las y los jóvenes de la CAPV muestran posturas más extremas que la juventud española, es decir, en la CAPV son más quienes dicen estar interesados pero también son más quienes declaran no tener ningún interés.



Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Alderdi batekiko hurbiltasuna / Proximidad a algún partido político

(GUZTIZKOAK, BILAKAERA ETA KOLEKTIBOKA / TOTALES, EVOLUCIÓN Y POR COLECTIVOS)

Alderdi politikoren batetik hurbil sentitzen zara? / ¿Se siente Ud. próximo/a a algún partido político?

n=2.165	15-29 URTE / 15-29 AÑOS											>= 30 URTE >= 30 AÑOS	
	GAZTEEN GUZTIZKOAK / TOTAL JÓVENES	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				GEHIENBAT EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA / SENTIMIENTO PREDOMINANTEMENTE VASCO		
		ÁRABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	15-17	18-21	22-25	26-29	Bai / Sí		Ez / No
Oso hurbil / MUY PRÓXIMO/A	3	2	3	5	4	3	3	4	4	3	5	2	6
Nahikoa hurbil / BASTANTE PRÓXIMO/A	9	9	9	10	9	9	4	9	10	11	12	6	11
Apur bat / ALGO PRÓXIMO/A	15	15	14	15	15	14	9	14	16	17	17	13	19
Ez oso hurbil / POCO PRÓXIMO/A	21	20	21	21	23	18	18	20	22	21	21	22	19
Ez, inolara ere ez / NADA PRÓXIMO/A	51	52	52	48	47	54	64	51	47	46	43	55	42
Ed-Ee / NS-NC	2	2	1	2	2	2	3	1	2	1	1	1	2
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Gutxi dira (%12) alderdi politikoren batetik oso edo nahikoa hurbil sentitzen direla dioten gazteak. Aurreko urteetan ere hori nabarmentzen zen.


Alderdiren batetik hurbilen sentitzen direnak gehienbat euskal herritar sentimendua dutenak dira, nahiz eta haien artean ere gutxi izan hurbiltasun hori adierazi dutenak (%17).

15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ia bi herenek (%64k) ez direla inolako alderditatik batere hurbil sentitzen diote.

Son pocos (12%) las y los jóvenes que dicen sentirse muy o bastante próximos a algún partido político, al igual que se evidenciaba en años anteriores.

Quienes muestran mayor cercanía a algún partido son quienes poseen sentimiento predominantemente vasco, si bien también entre ellos son pocos quienes señalan tal cercanía (17%).

Casi dos tercios de las y los adolescentes de 15 a 17 años (64%) dicen no sentirse nada próximos a ningún partido político.




Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Alderdi politikoekiko begikotasuna / Simpatía hacia los partidos políticos

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

0-tik 10-erako eskala erabiliz, 0-ak inolako sinpatiarik ez eta 10-ak sinpatia handia esan nahi dutelarik, zenbateko sinpatia sortzen dizute ondoko alderdi politikoek? / ¿Qué grado de simpatía siente por cada uno de los siguientes partidos políticos en una escala de 0 a 10, en la que el 0 significa ninguna simpatía y el 10 mucha simpatía?



Alderdi politiko batek ere ez du lortu euskal gazteriarren oniritzia. Baloraziorik onenak EAJ-
rentzat izan dira eta txarrenak PPrentzat. Puntuazioen bilakaerari erreparatuz, ikus daiteke
2006an PSE-EEK eta Batasunak orain arteko kalifikaziorik onenak lortu dituztela.

Ningún partido político consigue el aprobado entre la juventud vasca. Las mejores valoraciones son para el PNV y las peores para el PP. Atendiendo a la evolución de las puntuaciones, se observa que PSE-EE y Batasuna obtienen en 2006 su mejor calificación hasta el momento.

Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Alderdi politikoekiko begikotasuna / Simpatía hacia los partidos políticos

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

0-tik 10-erako eskala erabiliz, 0-ak inolako sinpatiarik ez eta 10-ak sinpatia handia esan nahi dutelarik, zenbateko sinpatia sortzen dizute ondoko alderdi politikoek? / ¿Qué grado de simpatía siente por cada uno de los siguientes partidos políticos en una escala de 0 a 10, en la que el 0 significa ninguna simpatía y el 10 mucha simpatía?

n=2.165	15-29 URTE / 15-29 AÑOS											>= 30 URTE >= 30 AÑOS	
	GAZTEEN GUZTIZKOAK / TOTAL JÓVENES	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				GEHIENBAT EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA / SENTIMIENTO PREDOMINANTEMENTE VASCO		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	15-17	18-21	22-25	26-29	Bai / Sí		Ez / No
EAJ/ PNV.....	4.5	4.3	4.7	4.4	4.5	4.5	4.9	4.4	4.4	4.6	4.8	4.2	5.0
EA.....	4.0	3.8	3.9	4.1	4.0	3.9	4.3	3.9	3.9	3.9	4.5	3.3	4.2
EZKER BATUA/.....	3.9	3.9	3.7	4.1	3.9	3.8	4.2	3.9	3.7	3.9	4.2	3.4	3.5
PSE-EE.....	3.8	3.9	3.8	3.8	3.8	3.9	4.1	3.5	3.8	4.0	3.3	4.6	4.2
EHAK / PCTV.....	3.7	3.5	3.3	4.3	3.8	3.5	4.1	3.8	3.5	3.4	4.7	2.2	2.9
ARALAR.....	3.6	3.5	3.3	4.0	3.7	3.5	4.0	3.6	3.5	3.4	4.1	2.8	3.3
BATASUNA.....	3.5	3.1	3.2	4.1	3.6	3.3	3.9	3.7	3.3	3.2	4.7	1.8	2.8
PP.....	1.9	2.1	2.0	1.6	1.8	1.9	2.3	1.8	1.7	1.9	1.0	3.3	2.1

*(0-10 ARTEKO BATEZ BESTEKOA) / (MEDIA 0-10)

Gazteek 29 urtetik gorakoek baino puntu gehiago eman dizkiete Ezker Batuari, Aralarri, EHAKri eta Batasunari eta gutxiago EAJri, EAri, PSE-EEri eta PPri.


Gehienbat euskal herritarrek sentitzen direnak hobeto baloratu dute EAJ, EA, EB, Aralar, EHAK eta Batasuna eta txartoago PSE-EE eta PP. PSE-EEK lortu du puntuaziorik onena euskal herritar sentimendu nagusia ez dutenen artean.

Nerabeek (15-17 urte) puntuaziorik onenak eman dizkiete, oro har, alderdi guztiei.

Las y los jóvenes dan más puntos que quienes superan los 29 años a Ezker Batua, Aralar, EHAK y Batasuna, y menos puntos a PNV, EA, PSE-EE y PP.

Quienes se consideran predominantemente vascos valoran mejor a PNV, EA, EB, Aralar, EHAK y Batasuna y peor a PSE-EE y PP. El PSE-EE es el partido con mejor puntuación entre quienes no se consideran predominantemente vascos.

Las y los adolescentes (15-17 años) tienden a dar mejor puntuaciones, en general, a todos los partidos.




Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Buruzagi politiko balorazioa / Valoración de líderes políticos

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

Orain zenbait politikoren balorazioa eginez, esadazu, mesedez, zenbat puntu emango zeniokeen politiko bakoitzari, 0-tik 10-erako eskalan. /

Pasando ahora a valorar ciertos líderes políticos, dígame cuántos puntos daría en una escala del 0 al 10 a...



Buruzagi politiko batek ere ez du lortu gazteen oniritzia; are gehiago, bakarrik Arnaldo Otegi eta Patxi Lopezek hobetu dituzte 2005ean jasotako puntuazioak (izatez, Lopezek orain arteko kalifikaziorik onena lortu du).

Ningún líder político consigue el aprobado de las y los jóvenes; es más, tan sólo Arnaldo Otegi y Patxi López consiguen mejorar las puntuaciones recogidas en 2005 (de hecho, López obtiene su mejor calificación hasta el momento).

Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Buruzagi politikoaren balorazioa / Valoración de líderes políticos

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Orain zenbait politikoren balorazioa eginez, esadazu, mesedez, zenbat puntu emango zeniokeen politikoko bakoitzari, 0tik 10-erako eskalan. / Pasando ahora a valorar ciertos líderes políticos, dígame cuántos puntos daría en una escala del 0 al 10 a...

n=2.165	15-29 URTE / 15-29 AÑOS											>= 30 URTE >= 30 AÑOS	
	GAZTEEN GUZTIZKOAK / TOTAL JÓVENES	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				GEHIENBAT EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA / SENTIMIENTO PREDOMINANTEMENTE VASCO		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	15-17	18-21	22-25	26-29	Bai / Sí		Ez / No
JUAN JOSE IBARRETXE LEHENDAKARIA / EL LEHENDAKARI JUAN JOSÉ IBARRETXE.....	4.8	4.6	5.0	4.6	4.8	4.9	5.2	4.7	4.6	5.0	5.2	4.4	5.4
JOSU JON IMAZ	4.1	4.0	4.2	4.0	4.1	4.1	4.6	3.8	4.0	4.3	4.3	4.1	4.8
JOSE LUIS RODRIGUEZ ZAPATERO	4.0	3.9	4.0	3.9	3.9	4.0	4.4	3.7	3.9	4.1	3.5	4.6	4.5
BEGOÑA ERRAZTI	3.8	3.8	3.9	3.7	3.8	3.9	4.3	3.6	3.8	3.9	4.2	3.3	4.1
PATXI ZABALETA	3.7	3.5	3.7	3.8	3.7	3.7	4.4	3.4	3.6	3.7	3.9	3.3	3.7
NEKANE ERAUSKIN	3.7	3.5	3.7	3.9	3.6	3.8	4.2	3.6	3.6	3.7	4.5	2.6	3.4
ARNALDO OTEGI.....	3.7	3.4	3.5	4.1	3.9	3.5	4.2	3.9	3.5	3.4	4.7	2.2	3.0
JAVIER MADRAZO	3.5	3.4	3.6	3.5	3.5	3.5	4.0	3.3	3.5	3.6	3.6	3.5	3.5
PATXI LÓPEZ	3.5	3.5	3.7	3.3	3.5	3.6	4.0	3.3	3.4	3.6	2.9	4.5	3.8
GASPAR LLAMAZARES	3.3	3.3	3.4	3.0	3.3	3.2	3.4	3.0	3.3	3.4	3.0	3.7	3.4
MARÍA SAN GIL	2.0	2.2	2.2	1.7	2.0	2.2	2.7	1.9	1.9	2.1	1.2	3.4	2.3
MARIANO RAJOY	1.8	2.1	2.0	1.5	1.7	2.0	2.3	1.8	1.7	1.8	1.0	3.0	2.1

* (0-10 ARTEKO BATEZ BESTEKOA) / (MEDIA 0-10)

- Gipuzkoan zerrendako bigarren tokian, lehendakariaren atzetik, Otegi kokatu da.
- Gehienbat euskal herritar sentimendua dutenek gainontzekoek baino puntuazio hobek eman dizkiete Ibarretxe Lehendakariari, Begoña Erraztiri, Patxi Zabaletari, Arnaldo Otegi eta Nekane Erauskin, eta txarragoak Estatuko buruzagiei (Rodríguez Zapaterori, Rajoyri eta Llamazaresi), baita María San Gili eta Patxi López ere.
- 15 eta 17 urte arteko nerabeek gainontzeko gazteek baino puntuazio altuagoak eman dizkiete, oro har, buruzagi guztiei.
- Gazteek 29 urtetik gorakoek baino balorazio hobek eman dizkiete Arnaldo Otegi eta Nekane Erauskin; berdina Patxi Zabaletari eta Javier Madrazori, eta txarragoak gainontzeko buruzagiei.


- En Gipuzkoa Otegi ocupa el segundo puesto del ranking, por detrás del Lehendakari.
- Quienes poseen sentimiento predominantemente vasco puntúan bastante mejor que el resto al Lehendakari Ibarretxe, Begoña Errazti, Patxi Zabaleta, Arnaldo Otegi y Nekane Erauskin, y bastante peor a los líderes estatales (Rodríguez Zapatero, Rajoy y Llamazares), así como a María San Gil y Patxi López.
- Las y los adolescentes de 15 a 17 años tienden a dar puntuaciones más elevadas que el resto de jóvenes a todos los líderes en general.
- Las y los jóvenes valoran mejor que las y los mayores de 29 años a Arnaldo Otegi y Nekane Erauskin, igual a Patxi Zabaleta y Javier Madrazo y peor al resto de líderes políticos.

Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Norberaren kokapena ezker-eskuin ardatzean / Autoubicación en el eje izquierda-derecha

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

Eskuinekoa edo ezkerrekoa izatearen artean, nola jotzen duzu zeure burua? / Entre ser de derecha y de izquierda, ¿cómo se define Ud.?



EAEko gazteen kopuru askoz handiagoak jo du bere burua ezkerretzat (%50k), eskuinekotzat (%5ek) edota zentrotzat (%14k) baino. Gainera, ia heren bat ez da kokatu ardatz ideologiko horretan. Joera hori urtez urte errepikatzen da.

Las y los jóvenes de la CAPV se definen en bastante mayor medida de izquierda (50%) que de derecha (5%) o centro (14%). Además, casi un tercio no se posiciona en este eje ideológico. Esta es un tónica que se repite a lo largo de los años.

Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Norberaren kokapena ezker-eskuin ardatzean / Autoubicación en el eje izquierda-derecha

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Eskuinekoa edo ezkerrekoa izatearen artean nola jotzen duzu zeure burua? / Entre ser de derecha y de izquierda, ¿cómo se define Ud?

	15-29 URTE / 15-29 AÑOS											>= 30 URTE >= 30 AÑOS	
	GAZTEEN GUZTIZKOAK / TOTAL JÓVENES	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				GEHIENBAT EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA / SENTIMIENTO PREDOMINANTEMENTE VASCO		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	15-17	18-21	22-25	26-29	Bai / Sí		Ez / No
n=2.165													
Oso eskuinekoa / EXTREMA DERECHA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Eskuinekoa / DERECHA	3	4	3	2	3	3	2	3	2	4	1	6	6
Zentro eskuinekoa / CENTRO DERECHA	2	2	2	2	2	1	1	1	3	2	1	4	4
Eskuinekoa, oro har / DERECHA, EN GENERAL *	5	6	5	4	5	4	3	4	5	6	2	10	10
Zentrokoa / CENTRO	14	12	16	11	14	14	11	14	13	16	10	22	17
Zentro ezkerrekoa / CENTRO IZQUIERDA	8	9	9	5	8	7	5	6	10	8	7	9	10
Ezkerrekoa / IZQUIERDA	40	43	36	46	41	39	28	43	42	41	51	28	38
Oso ezkerrekoa / EXTREMA IZQUIERDA	2	2	2	2	3	1	1	2	2	3	4	1	1
Ezkerrekoa, oro har / IZQUIERDA, EN GENERAL **	50	54	47	53	52	47	34	51	54	52	62	38	49
Ed-Ee / Ns-Nc	31	27	32	32	28	35	51	30	27	26	26	31	24
(EHUNeko BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* ESKUINEKOA, ORO HAR: OSO ESKUINEKOA + ESKUINEKOA + ZENTRO ESKUINEKOA / DERECHA, EN GENERAL: EXTREMA DERECHA + DERECHA + CENTRO DERECHA.

** EZKERREKOA, ORO HAR: OSO EZKERREKOA + EZKERREKOA + ZENTRO EZKERREKOA / IZQUIERDA, EN GENERAL: EXTREMA IZQUIERDA + IZQUIERDA + CENTRO IZQUIERDA.

Ezkerrean kokatzen diren gazteen eta helduen kopuruak antzekoak badira ere, gazteen artean are gutxiagok jo dute beren burua eskuindartzat.

Gehienbat euskal herritar sentimendua duten gazteek batez ere ezkerrekotzat jo dute beren burua (beste taldeek baino ehuneko altuagoak adierazi dituzte); euskal herritar sentimendu hori nabarmentzen ez den gazteen artean kokapen ideologikoak pluralagoak dira, nahiz eta ezkerrekoa nagusia izan.

15 eta 17 urte arteko nerabeen erdiek ez dute beren burua kokatu ardatz ideologiko horretan.

Aunque el posicionamiento en la izquierda es similar entre jóvenes y mayores, entre las y los jóvenes son aún menos quienes se definen de derecha.

Las y los jóvenes con sentimiento predominantemente vasco se definen principalmente de izquierda (con porcentajes superiores al resto de colectivos); entre quienes no poseen ese sentimiento predominantemente vasco hay mayor diversidad de posicionamientos ideológicos, pese a que siguen siendo más quienes se consideran de izquierda.

La mitad de las y los adolescentes de 15 a 17 años no se posicionan en este eje ideológico.

Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Norberaren kokapena euskal herritar-espainiar ardatzean / Autoubicación en el eje vasco-español

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)


Euskal herritarra eta espainiarra izatearen artean, nola jotzen duzu zeure burua? / Y entre ser vasco/a y español/a, ¿cómo se define Ud.?

Gazteen erdiak baino apur bat gehiago batez ere euskal herritarrak sentitzen dira (eta horien artean heren batek baino gehiagok euskal herritartzat bakarrik jo dute beren burua). Hamarretik hiruk euskal herritarrak bezain espainarrak sentitzen direla diote eta bakarrik %4k diote gehienbat espainarrak sentitzen direla.

Aurreko urteetako datuekin konparatuz gero, ez da alde nabarmenik aurkitu.

Algo más de la mitad de las y los jóvenes se sienten principalmente vascos (y, entre ellos, más de un tercio se define como únicamente vasco). Tres de cada diez dicen sentirse tan vascos como españoles y apenas un 4% dice sentirse predominantemente español.

No hay cambios destacables respecto a años anteriores.



Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Norberaren kokapena euskal herritar-espainiar ardatzean / Autoubicación en el eje vasco-español

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Euskal herritarra eta espainiarra izatearen artean nola jotzen duzu zeure burua? / Entre ser vasco/a y español/a ¿cómo se define Ud?

n=2.165	15-29 URTE / 15-29 AÑOS											>= 30 URTE >= 30 AÑOS	
	GAZTEEN GUZTIZKOAK / TOTAL JÓVENES	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				GEHIENBAT EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA / SENTIMIENTO PREDOMINANTEMENTE VASCO		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	15-17	18-21	22-25	26-29	Bai / Sí		Ez / No
EUSKAL HERRITARRA BAKARRIK / ÚNICAMENTE VASCO/A	36	25	36	42	38	34	41	40	36	32	67	0	29
EUSKAL HERRITARRA, ESPAINIARRA BAINO GEHIAGO / MÁS VASCO/A QUE ESPAÑOL/A	18	23	17	17	19	17	19	18	19	16	33	0	15
GEHIENBAT EUSKAL HERRITARRA / PREDOMINANTEMENTE VASCO/A *	54	48	53	59	57	51	60	58	55	48	100	0	44
EUSKAL HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA / TANTO VASCO/A COMO ESPAÑOL/A	30	33	31	27	27	33	26	28	31	32	0	87	36
ESPAINIARRA, EUSKAL HERRITARRA BAINO GEHIAGO / MÁS ESPAÑOL/A QUE VASCO/A	2	3	2	2	3	2	2	2	1	4	0	7	4
ESPAINIARRA BAKARRIK / ÚNICAMENTE ESPAÑOL/A	2	5	2	1	2	3	1	2	2	3	0	7	7
GEHIENBAT ESPAINIARRA / PREDOMINANTEMENTE ESPAÑOL/A *	4	8	4	3	5	5	3	4	3	7	0	14	11
Ed-Ee / Ns-Nc	11	11	11	11	11	11	10	11	11	13	0	0	9
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* GEHIENBAT EUSKAL HERRITARRA: "EUSKAL HERRITARRA BAKARRIK" + "EUSKAL HERRITARRA, ESPAINIARRA BAINO GEHIAGO". GEHIENBAT ESPAINIARRA: "ESPAINIARRA BAKARRIK" + "ESPAINIARRA, EUSKAL HERRITARRA BAINO GEHIAGO" / PREDOMINANTEMENTE VASCO/A: "ÚNICAMENTE VASCO/A" + "MÁS VASCO/A QUE ESPAÑOL/A". PREDOMINANTEMENTE ESPAÑOL/A: "ÚNICAMENTE ESPAÑOL/A" + "MÁS ESPAÑOL/A QUE VASCO/A".

- Gazteen artean 29 urtetik gorakoen artean baino gehiagok dute gehienbat euskal herritar sentimendua.
- Zenbat eta gazteagoak izan orduan eta gehiago dira gehienbat euskal herritarrek sentitzen direla dioten gazteak.
- Sentimendu hori zertxobait zabaldago dago Gipuzkoan, beste lurraldeetan baino.
- Aipatu behar da gehienbat euskal herritar sentimendurik ez dutenen artean gehienek ez dutela ere espainiar sentimendu nagusirik (nahiz eta talde horretan sentimendu hori dezentz zabaldago egon), baizik eta gehienak euskal herritar bezain espainiarrak sentitzen direla.

- Entre las y los jóvenes son más que entre las y los mayores de 29 años quienes poseen un sentimiento predominantemente vasco.
- A medida que desciende la edad aumenta el número de jóvenes que dicen sentirse predominantemente vascos.
- Este sentimiento está algo más extendido en Gipuzkoa que en el resto de territorios.
- Hay que señalar que entre quienes no poseen ese sentimiento predominante vasco la mayoría tampoco tiene sentimiento predominante español (aunque sea bastante más alto que la media), sino que la mayoría se sienten tanto vascos como españoles.

Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Estatuaren lurralde antolaketa / Organización territorial del Estado


(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / TOTALES Y POR COLECTIVOS)

Espainiako Estatuaren lurraldea antolatzeko modu hauen artetik, zein duzu gustukoena? / ¿Con qué fórmula alternativa de organización territorial del Estado Español está Ud. más de acuerdo?

n=721	15-29 URTE / 15-29 AÑOS										≥ 30 URTE ≥ 30 AÑOS		
	GAZTEEN GUZTIZKOAK / TOTAL JÓVENES	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD					GEHIENBAT EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA / SENTIMIENTO PREDOMINANTEMENTE VASCO	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	15-17	18-21	22-25	26-29		Bai / Sí	Ez / No
GAUR EGUNGOA BAINO ZENTRALIZATUAGOA DEN ESTATUA / UN ESTADO MÁS CENTRALIZADO QUE EL ACTUAL	6	4	6	8	5	7	6	7	4	7	4	9	6
GAUR EGUNGOA BEZALA, KOMUNITATE AUTONOMOEN OSATUTAKO ESTATUA / UN ESTADO CON COMUNIDADES AUTÓNOMAS COMO EN LA ACTUALIDAD.....	24	31	27	17	22	27	20	28	26	22	11	45	28
GAUR EGUN BAINO AUTONOMIA MAILA HANDIAGOA DUTEN KOMUNITATE AUTONOMOEN OSATUTAKO ESTATUA / UN ESTADO EN EL QUE LAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS TENGAN MAYOR AUTONOMÍA QUE EN LA ACTUALIDAD	24	29	24	24	24	25	24	26	26	22	25	26	23
KOMUNITATE AUTONOMOEN AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA ONARTZEN DIEN ESTATUA / UN ESTADO QUE RECONOCIESE EL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN DE LAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS.....	30	23	27	37	33	26	24	28	30	34	48	7	30
Ed-Ee / NS-Nc	16	13	17	14	16	15	26	10	15	15	13	13	14
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Espainiako Estatuaren lurraldea antolatzeko moduari dagokionez, ez dago jarrera nagusirik gazteen artean. Bereizketa nabarmenena nortasun sentimenduen arabera dator: gehienbat euskal herritar sentimendua dutenak autonomia erkidegoei autodeterminazio eskubidea onartzen dien estatuaren alde agertuko lirateke; sentimendu hori ez dutenek, aldiz, nahiago lukete oraingo ereduarekin jarraitu. Zenbat eta zaharragoak izan orduan eta gehiagok nahiago lukete autodeterminazio eskubidea onartzen duen estatua; aukera hori gehiago aipatu da Gipuzkoan ere, beste lurraldeetan baino.

No existe una postura mayoritaria entre las y los jóvenes respecto a la fórmula ideal de organización territorial del Estado Español. La distinción más acusada se da en función del sentimiento identitario: quienes poseen un sentimiento predominantemente vasco abogarían principalmente por un estado que reconociese el derecho de autodeterminación, mientras que quienes no lo poseen desearían seguir con la fórmula actual. A medida que aumenta la edad también lo hace la preferencia por el reconocimiento del derecho de autodeterminación y esta opción también es más secundada en Gipuzkoa que en el resto de territorios.



Jarrera politiko orokorrak / Actitudes políticas generales

Autodeterminazio eskubidea onartzeari buruzko jarrera / Actitud respecto al reconocimiento del derecho de autodeterminación

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / TOTALES Y POR COLECTIVOS)

Eta zu Euskal Herriari autodeterminazio eskubidea onartzearen alde edo kontra zaude? /
¿Y Ud. está a favor o en contra del reconocimiento del derecho de autodeterminación para el País Vasco?


